

kolaborazioak

Paulo Agirrebaltzalegi • Idazlea

Euskara: Inkestak eta plangintza

Gasteizko eta Iruñeko Hizkuntz Politikaren arduradunek eta Ipar Euskal Herriko EKE (Euskal Kulturaren Erakundeak) aurkeztu berriak dituzte 1995-96 urteetan Euskal Herri osoan egindako galdeketa soziolinguistikoaren emaitza nagusiak. Aurreko galdeketa 1990-91 bitartean egin zuten, eta horren emaitza orokorrrak 1995ean argitaratu zituzten, Euskararen Jarraipena izenburupean. Oraingoari Euskararen Jarraipena 2 izena eman dio, aurrekoaren ondorengoa dela adieraziz.

Hasteko, puzgartia da zinez euskarak elkartzea Euskal Herriaren hiru lurralde administratiboetako kargudunak, galdeketa berbera egiteko Euskal Herri osoan eta horren emaitzak elkarrekin kaleratzeko. Baina aldi berean hiru lurralde administratiboen egoera eta dinamika ezberdin nabarmen-tzen ditu, hiruren euskararekiko egoera juridiko eta praktiko politiko ezberdinak salatuz. Dena dela, garbi dago, kontrastean eta guzti, euskarak elkartzen gaituela euskaldunok.

Bereziki garrantziko da oraingo inkesta, aurrekoarekin nahikoa-eraz aldera daitekeelako; euskararen aurrerapen-atzerapen dinamikaren eta prozesuaren ikuspegi ematen digu horrek. Aurreko galdeketa bezala hiru dira kapitulu nagusiak: euskararen ezagutza edo gaitasuna, euskararen erabilera, euskararekiko (eta horri buruzko politikarekiko) jarraera. Oraingoan, hala ere, lehen hizkuntzan eta euskararen familia bidezko transmisioari kapitulu berezia eman gura izan diote, aurreko galdeketa zeharka bakarrik ageri zenari.

Lurraldeka (EAEn), eremuka (Nafarroan) edo zonaldeka (Iparraldean) eskaini dizkigute datuak; ezagutzekoak izango dira eskualdean, herrien zein auzoen araberako datuak ere. Hemen ohar xume eta orokorren batzuk besterik ez ditugu egingo. Euskal Herri osoari dagozkienak, lurralde administratibo bakoitzeko datuetan sartu gabe.

Funtsezko konstatazio nabaria bezain larria Erantzunen azkenburuko datu adierazgarriena euskaragaitasunarena da, hau da, heriotzarek duten euskararen ezagutza, euskararen normal-kuntzaren helburua euskararen heriotza guztiok euskaradun -elebidun- izatea baldin bada; horixe da abiapuntu datu erabakigarriena ere, euskaldunen edo elebidunen kopurua gora ala behera doan, alegia, euskaldunak bakarrik izan baitaitezke euskararen normal-kuntzaren motorra. Ba, aurreko galdeketa eta oraingoaren emaitzak alderatuz, elebidunak (funtzio-dakak) + euskaldun elebakarrak ia puntu eta erdi jaitsi dira bost urteotan. Egia da erdaldun elebakarrak ere 4

Inkestak berak nabarmen erakusten du zein urrun gauden euskararen berreskurapen osotik eta normalkuntzatik, baina aldi berean nabarmen ipintzeri du zein garrantzi handia duten euskaldunek (%22 horrek) berreskurapenaren eta normalkuntzaren motor gisa

puntu jaitsi direla; baina %63 dira oraindik Euskal Herri osoan. Hona azkene-koaren datu gordinak: Elebidunak %22 -elebidun hartzaileak %14,5 - erdaldun elebakarrak %63 -euskaldun elebakarrak %0,5 besterik ez dira-.

Egia da, euskaldunen eta erdaldunen arteko erlatzioa iraultzek ez dakarrela, besterik gabe, euskararen normal-kuntza, ez eta herritar guztiok euskara jakiteak ere. Bestalde, oso azpimarratzekoa da elebidun hartzaileen kopurua igotzea ere (5,5 puntu), euskararen aldeko dinamika positiboa adierazten duelako. Baina azken batez euskaldunen %22ko horrek determinatzen du inkesta osoa, gaitasunaren galderean datuak jarri ondoren, erdaldunak eta elebidun hartzaileak ere (herritarren %77,5) inkesta-aren atal nagusienetik -euskararen erabileri buruzko- kanpo geratzen baitira. Horregatik inkestak berak nabarmen erakusten du hasieratik bertatik zein urrun gauden euskararen berreskurapen osotik eta normal-kuntzatik; baina aldi berean

nabarmen ipintzen du zein garrantzi handia duten euskaldunek (%22 horrek) berreskurapenaren eta normal-kuntzaren motor gisa.

Motorra handitzeak eta indartzeak -trinkotzeak- euskararen berreskurapen normal-kuntzaren mugimendua osoari eragiteko gaitasuna eragotzeko da.

Hiru gogoeta gehigarri

1. Euskararen berreskurapen-normalkuntzatarako plangintza. Inkesta egiteak helburuen bat izan behar du, eta hori ez da gure kasuan zientifiko hutsa, politikoa baizik; hau da, hizkuntz plangintzari begira egiten da inkesta soziolinguistikoa. Eusko Jauritzaren aldeko badugu euskara biziberritze-ko plangintza instituzional orokorrik, duela urtebetetik hona, bere muga eta kontz- dizioa eta guzti; Nafarroako gobernuaren plangintza eta politika badirudi, euskararen ondare kulturala kontserbatze-ko eta aldi berean horren aldeko dinamika soziala mugatzeko diseinatu dagoela, onenean ere; Iparraldean, estatuko agintariak ez dute erakusten euskararentzat inol-

ko plangintzarik, horren aldeko eskabideak ixilarazteko helburuarekin ez bada.

Hiru lurralde administratibo- inkesta bateratuek noiz ekarriko dute hiru aldetako plangintza eta politika bateratua, euskararen berreskurapen osoari eta normalkuntzari begira? Baina horrelako helburua den ondonalako plangintza seriotarako, funtsezkoa da euskararen ofizializazioa. Horixe dugu errenka nagusia: Euskal Herri osoan euskara ofizial bihurtzea. Horren beharra nabarmen geratu da inkestan.

Zorionez indar biziz eta zentzuz abiatu du Euskararen Gizarte-Erakunde- Konseiluak ikuspegi sozialeko plangintza estrategikoa, Euskal Herri osoarako argi disemua, eta plangintza instituzionalen aurka, euskararen normalkuntzarako mugimendua eta politika potentziatzeko baizik. Badi- rudi lehen inkestaren emaitzen azterketarako hainbat jenderen artean Arkauten antolaturiko mintegitzi (1992) ateratuko ondorioa baliozkoa dela inoiz baino gehiago: *Integrar las ini-*

ciativas institucionales y sociales, concediendo especial protagonismo a la sociedad civil.

2. Familia bidezko transmisioa eta eskaintza kulturala. Datoren urteetako hizkuntz plangintzan bi kapitulu nagusi bereziki kon- tuntu hartzekoak direla diru- di: euskararen familia bidezko transmisioa eta euskaldunentzako euskarazko eskaintza kulturala.

Aipatua dugu euskararen familia bidezko transmisioari inkestak eman dion pisua oraingoan. Izatez, funtsezko garrantzia du, jakina, lehen hizkuntza euskara ala erdara izateak, jendeen hizkuntz jokabiderako; bestalde, plangintza instituzionalari oso merke ateratzen zaio gurasoen kargu doan euskararen iraupena eta aurrerapena.

Euskarazko kultur eskaintza handitzea eta zabal- tzea, beriz, ez da kontu tri- kiagokoa, normalkuntza -plangintza orokorrrak eraginkortasunik izango badu. Aipaturiko Arkauteko min- tegiar R. Bourhis soziolin- guistak jaultzitako ideia jaso besterik ez dut egingo he- men: Hizkuntza eta kultura elkartu beharra dago hiz- kuntz politikari, kulturgin- tzaiko alor berriak irabazi beharra dauka euskarak, batez ere kultur dimensio berriak, modernotasunari lotuak. Denok dakigu, esko- lak ez duela ematen behar- ko lekeen fruiturik, horren inguruan eta ondoren gazte- ci euskarazko eskaintza kul- tural aberatsa eta zabala egiten ez bazate.

3. Euskaldunen dentsitatea eta euskararen erabilera. Euskaldun elebidunen den- sitateak, ez du berez euska- raren erabilera proportzio- nalki handitzen; ondorio oso garrantzizkoa, inkestak era- kusten diguna. Dentsitate- rik handiena Iparraldean dago oraindik, baina erabilera (xi- kiena ere bertan, oro har. Se- me-alabekin guraso euskal- dunetatik %37 mintzatzen da euskaraz (EAEn %73, Nafar- roan %65), osasun-zerbitzu- tan %9k erabiltzen du euska- ra Iparraldean (%33k EAEn eta %34k Nafarroan); ex- cean Iparraldeko %35ek erabiltzen du euskara (%48k EA- En eta % 46k Nafarroan); seme-alaben irakasleekin gu- raso euskaldunen %21ek ba- karrik erabiltzen du euskara Iparraldean (%85ek EAEn eta %76k Nafarroan); ban- kuan %19k Iparraldean (%56 eta 43k EAEn eta Na- farroan). Oso nabarmenak eta adierazgarriak dira zifra horiek. Ere nabarmenagoak dira hori begira EKBk kale- ko euskarerabilerean neurketatik ateratuko emait- zak: %3,14k erabiltzen du euskarara Iparraldean eta %10,22k Euskal Herria oso- an hartuta. Euskararen alde- ko kontzientziak, tentsioak, dinamikak, gizarie eragileen jarre- rarak, horrek guztiak du kontu handia horretan za- lantzarik gabe. Ildo impor- tantea, jakina, Hizkuntz plangintzarako, instituzional nahiz sozialerako: *

